

Federiko Krutwig

POEMAK

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria:

<http://www.susa-literatura.com/emailuak/krutwig/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=75>

Bihotza

Munduak gezurra diyotsu, bihotza.
Gezur-gezurra bere argi indartsuez,
Nigarretan miña iñork ere aditzen
Eztuela derakhus.

Dadukazun miña ixillik negarr zazu,
Munduak ba'lekhus' handitu luke ta,
Nihork ere laguntzen ezteraukola
Nihori ezer ere ez.

Zure naigabea gorde zazu zutzat.
Bethi ixillik zagoz, ixillik, ixillik!
Khendu zazu begietatik nigarra
Nihork ezpeza ikhusi.

Naigabean zaro dadukazun miñak
Nigarrei ba'leriye, ba'lerakhuski
Eskutu thokirat iges egin zazu,
Bakharrik nigarr eizu.

Zoriak zuzaz barre egin nai ba'leza
Eragotz ezazu, gure phenak ilten
Barneko miñaz, ezpañetan barrea
Iphinten ba'geneki.

Eziezozu erran zuk miña innori.
Ixillik zagoz, egon ahal ba'zintez,
Ixillik gorde ezazu zure arimaren
Arimaren barnean.

Barre egizu, nigarr eitten duzun hori!
Bai ta phenak bizirik triskatzen ere!
Barre egin ezazu, zerorren barrea
Ilten nigarra da ta.

Biztu gaittun biziaren sukharr hori,
Eraman begaitza zu zarean nayak,
Laindoko Lege sorr hori, zathorzkigu,
Gugan izan zaittezen!

Olymptarr hoik, etzituztet gurtzen nik,
Iraunkhorrak zuek ere zerate ta,
Zigurki Ezerezerat zohazte ta,
Ezer etzerate ta.

Egan, 1949-3, 1949ko uztail-iraila, 9. orr

Zergatik

Aurrera doha gudaria bethi
Eztaki bannan zer dan nai duena,
Bere begiek lanno gaiztoena
dadukate ta.

Zer dan gudua triskatzea baizik'
Zergattik hiltzen herriko semeak'
Zergattik nigar gure alhabeak'
nihork eztaki.

Zure begi beltzetan'
nire zoria
ikhusi dut benetan'
zure begia
bai-tago nire baithan.

Gizonaren jakintza
itsasoko uin bat bezelakoa
bethi beko lurretan.
Nihork eztaki zein dan
Ta sentzitzen da ikhusi banno lehen.

Ezereztik gathorrtza-
ezer ezker-
ezerezerat gohaz
zer da biziau
gezurr bat baizik?

Guztia gezurra da;
dena irudia;
eztagoz ez gizonik;
ez arimarik;
dena atzipea da.

Begiez aurrerantza
mundua doha;
Bihotzez atzerantza.
Gizonan kosmos
Gogoz norat doha ba?

Gizonaren jakintza
txarr ta txikia
gogoaren argiaz
aintzina doha.
Berakin garamazki?

Egan, 1949-3, 1949ko uztail-iraila, 10. orr

Zer Naiz?

Zeru izarritsuari so ein ondoren'
Goizeko izarra nik dakhustanean'
Jaiotzen zait galde haur bihotzean:
Zer zara zu, ene gogoa, hemen?

Zergatik jaio ta zergatik bizi'
Bilhatzen dut eta ezin atzeman.
Ai nenki nork erran ahal derautan
Nork diezaketan haur niri iharditsi

Gogo ori, zergatik egin zara?
Haur nehoiz bururatu eztuzua?
Nora-nai joan, gora naiz behera'

Bethi ikhusiko dugu begi itsuez
Gezurra bai-ta gure Asturua
Kosmos bai-takhusagu estalduez.

Gernika, 16. zkia, 1951ko uztail-iraila, 33. orr.

Deo Ignoto

Zu zara gizonentzat ez jakina
 Bilhatzen bai-tzaitute lekhoretan.
 Bainan bide haur bethi da ezina
Zuk Dena bai-tuzu gure barnetan.

Barnean daukatenak zure mina
 Ba dagoz Zu zaren Egiatan
 Zugandiko txinparta munduetan
Gutzat bai-ta Zuk emandako zina.

Zu zara Dena, oro bai-taukazu.
 Eztuzu ezer ere egiten nehon,
 Mâyân ezer ere ezpai liteke egon.

Izateak Zugan daramazkizu;
 Zu zara gure Zori ta Siratsak,
 Gu gara Zure janzkiaren litsak.

Gernika, 17. zkia, 1951ko urri-abendua, 13. orr.

Nibbana

Karma hemen bethetzen dugularik
Kosmosko abysmu huntan gabiltza
Lilurazko kate batez zintzilik.
Eztala'...gu gara; garela'... gauntza.

Edonun Nibbana datza hedaturik
Hedago hunen pean ezereza,
Arima ezezaunean hutsa ta eza
Eta lanhotu lehietan hotzik.

Hoila, Lilura? Bethiko Nibbana?
Zer zaitu egoitearen hamaitza?
Bethorrku senda ahal gaitzakena!

Gure erigo minxhorra urthent bekigu.
Arimari darion hilen dantza
Gure norbaitetik khent biezaku!

Euzko-Gogoa, 1952ko urtarril-otsaila, 9. orr.

Arrizko rhapsodia

(sonetto)

Haitzurdinezko akanthos-orstoak
Propylaion landuen zuthabetan
Ederrtarzunaren erakhusketan
Bai legozen derakhuskigu Stoak.

Harrimeta huien antzegileak
Izituta skulpitu zituela
lanuei zegien psalmodien gela
Templa zabalean liren zinbelak.

Hunela harrizko rhapsodi huntan
Haizean dabilten Letheko notak
launak egin zituen materialian.

Horr ere ezarri zituen hymnuak
Tropaionez bethe zituenean
Ahantz eztietzakun historiak.

Euzko-Gogoia, 1952ko martxo-apirila, 3. orr.

Udazken lorak

Higaturik iausti udazken-lorak bidetako hautsez lohitzten dira eta ipharr-haize hotzek urrunera daramazkigute zirimolduak.

Hauk bezala Siratsak eramanak heltzen zaizkigu minak barrenera ta iguriki eztenaren anzora hor geratzen zaizku griña sarrkorrak.

Lorak baratzean bezala daudez gizonen bihotzetaratzekero luzaro ekuratzen baitirade.

Kiratsez lurrintzen gaitute garo gu gan erroak harr ditzaten fedez. Zoriak bertzela ehin eztiro? Gu huna jin zein xedez?

Arkanari galde egin gizonkiro,
edo itaundu mesedez
nehoiz ere Den oro
ezta agiriren Kosmos baita zoro.

Euzko-Gogoa, 1952ko martxo-apirila, 3. orr.

Sinphonia

(Sonetto)

Arrabitek erostaka Kosmosko harmonian
Edonun hedatzen dute biziaren auhena
Neurribako lekhunean beren hots ederrena
Dardaratzen doa aitzinat arimaraño gu gan.

Bainan soinu indarritsuagoz txeloaren kordaetan
Geroz egian argitik badathorrrku
Lehena lakintzaren labyrinthuak gu ganat ahalmena
Baitakharrku arhin-arhin geure urhenburuetan.

Bilhaturiko bakhea nola edirengo othe da?
Munduan lilurak baizik nehon eztagoz ta!
Bethitarzun-ametsean gu baikara konpasa

Gingatiko konpasetan ioan doa bizia
Amets-kumekin iolasten; Laindoko harmonia
Soinu bat baizik ezpaita bizidunen arraza.

Euzko-Gogoa, 1952ko martxo-apirila, 3. orr.

Bulharraren labyrinthua

Ba dakhust bulharraren labyrinthua
Neronen sentimenduen bidean
Ni-eidea kanporatzen denean
niganatzen baita kanpoko orrua.

Nigana jiten den kanpoko mundua
dathorrt Kosmos gaineko atzipean.
Gauzen izaitea' Ezerezean
dago; Nibbana da beren zentzua.

Dagozen gauzek atzipea dute,
gauzen gauza' ezin da bilhatzea;
gauzek barrnan gezurra baitaukate.

Lanho da oro, mundua' elhea.
Ezer eztago, eztago Gogorik,
Spiritua ezta khimaira baizik.

Euzko-Gogoa, 1952ko maiatz-ekaina, 1. orr.

Gerkerriko izpirituoi

(Sonetto)

Haizetan zabilzaten izpiritu hok!
Zuen baithan dagoz gure Gogo ta Aintza,
Zuek daukazue gure Kosmos zaintza.
Entzun guri ientzun! Denaren Indarrok!

Gerkarren iainko izan zaratenok.
Berriro zathorrzte orain gu ganantza?
Nahi diozue Kosmosi arantza
Bihotzetik khendu, Laindoko Legeok?

Mundua iausten da hosin beltz-beltzetan,
Ber hunen ametsok aphurrutuzen dira;
Ezer eztago, lo tzarr bat benetan

Gure mundua da, gugaz iolasten du;
Laindoko Legeak bere kanon gora
Eman dio' baikaitu nahi añendu.

Euzko-Gogoa, 1952ko maiatz-ekaina, 2. orr.

Errusitik...

Kanta itzazu gure kantik!
Errusitik jin kantetan!
uhinek letz itxasotan
kanta itzazu gure minak.

Kantuetan maitarzunak'
bizi dira bihotzetan
gurasoen gogoetan'
haurren kantik dira Tzarak.

Io ezazu, balalaika!
haren kordak gure barrnan
soinu baitu erostaka;

soinu hunen harmonian
gure phenak' urrumaka
neitzen zaizku ezarian.

Euzko-Gogoa, 1952ko maiatz-ekaina, 3. orr.

Haltzen Errege

(Goetheren «Erlkoenig» baladaren itzulpena)

Gau aizetan hoin berant laurhazka nor doa?

Ba dira biok, aita ta bere semettoa,
Bespetan darama haurrttoa zigurrki'
Berorik darama, ba datxeko sendoki.

«Zergatik eskutatzen duk hire musua?»

-« aítá, aítá! Haltz-errege eztakhusazua?

Haltzaren Errege koroiez ta buztanez ?»

-Semé, semé! haur dut lanhoa lurrin hutsez.»

-« Humetto maite! Athorr orain nirekin,

Jokho politez jolastuko haiz enekin;

Lili margotsuak bazterretan ditikat;

Ene amak urrhezko janzkiak hiretzat.»

-«Haltzaren Erregek agintzen darautana,

Aítá, aítá! orain entzuten eztuzuna?»

Geldirik ago, geldirik ago, memetto,

Aizeak orsto igarretan susmirrtzen bai-tu!»

-«Enekin ethorri nai ahal duk, haurr ederr?
Athorrite kuttun, zaituko haueten alhaber,
Hilargitan jolastuko duk en' alhabekin,
Dantzatzen, jolasten lo eginen duk arhin.»

-« Aitá, aitá! Ez ahal dituzu ikhusten dantzetan
Haliz-Erregen alhabak horr zokho ilhunetan?»

-« Seme, seme! bai ba zakhuskiat oroz,
Sarats zaharrak nabarr zirudie nâroz.»

-« Maite dikat hire ederrtarzuna. Su ta garr
Edukiko haut. Eztuk eingo igesik larr!»

-« Aitá, aitá! Haltz-Erregek harrtzen nau orain!
Ba narama! Min! Irain egin deraut irain!»

Aita ikharatu, lasterrka, laurhazka, egan,
Uhuriz haurrttoa besoetan zeraman.
Nekhez izitua athadira heldu ba da.
Bere besoetan haurra hil zedukan da!

Gernika, 15. zkia, 1951ko apiril-ekaina, 142. orr.

Zoriko Eresia

(Holderlinen «Schicksalslied» poemaren itzulpena)

Argitan zabilzte
Horr garaietan
Lurr samurretan,
Zorioneko Geniok!
Jainkoen aize dizdiratsuek
Hunkitzen zaituzte emeki,
Errtilarisaren hatzek
Korda sailduek bezala.
Sirats gabe'
Lotan humeak bezalaxe'
Asnas egiten dute Zerutarrek.
Arazki gordeturik'
Pinpin aphalean legez
Gogoa
Bethi ninikatzen zaie.
Eta zorioneko begiek
Behatzen deraukote
Bethikozko argitarzun geldia.

Bainan, geuk hatsedongurik
Eduki eztugu.
Urthe oro ezpaietarat'
Haitzitik-haitz
Ura jaurtiki den bezala'
Itsuki
Ordurik ordu
Aienatzen
Erortzen dira
Gizon jasankorrak.

Gernika, 16. zkia, 1951ko uztail-iraila, 11. orr.